

2024

EUSKADIKO GAZTEEK DITUZTEN IRITZIAK ETA JARRERAK GIZARTE-ALDAKETEI ETA PARTE-HARTZEARI BURUZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA

Edizioa: 1.a, 2025eko otsaila

Argitaratzailea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila
Gazteen Euskal Behatokia

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:

Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-d/3.0/deed.eu>

SARRERA

METODOLOGIA

1. GIZARTERAKO NAHI DUTEN ALDAKETA-MAILA
2. ALDAKETEK NORANTZ JO BEHAR DUTEN
3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA
4. GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO GOGOA
5. MODU EZBERDINETAN PARTE HARTZEKO PRESTASUNA
6. AZKEN URTEAN MOBILIZAZIO MOTA EZBERDINETAN PARTE HARTZEA
7. AZKEN HIRU URTEETAN IZANDAKO HAUTESKUNDEREN BATEAN BOZKATZEA

LABURPENA

SARRERA

Txosten honetan, gazteek nahi dituzten gizarte-aldaketei eta gai publikoetan parte hartzeko prestasunari buruz dituzten iritziei eta jarrerari buruzko datu eguneratuak eskaintzen ditugu.

Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak 2024ko urrian egindako inkesta batetik datoz. Inkesta horretan 15 eta 29 urte bitarteko 2.047 gazte elkarrizketatu ditugu.

Aurreko urteetako datuak ditugunean, horien bilakaera aurkezten dugu, planteatutako gaiei buruz gazteek dituzten iritzia nola aldatu diren ikusteko.

Halaber, datuak sexuaren eta adinaren arabera bereizita aurkezten ditugu, eta, kasu batzuetan, iritzizko beste aldagai batzuen arabera, kolektiboen arteko desberdintasunak antzemateko.

METODOLOGIA

Ikerketa-teknika	Kanal anitzekoa: 1.684 inkesta online osatu dira, norberak betez eta 363 telefono bidezko elkarrizketa lagunduaren bidez.
Galde-sorta	Egituraturua eta galdera gehienak itxiak izan dira
Unibertsoa	Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
Inkesta-kopurua eta aldagai soziodemografikoen arabera banaketa	<p>Guztira, 2.047 inkesta osatu dira.</p> <p>Lurralde historikoen arabera banaketa hauxe izan da: 451 inkesta Araban bizi diren gazteei dagozkie, 820 inkesta Bizkaian bizi direnei, 630 Gipuzkoan bizi direnei eta 146 inkesta gaur egun Euskaditik kanpo bizi diren gazteei.</p> <p>Sexuaren arabera banaketak erakusten du inkesta erantzun dutela 1.165 emakumek, 862 gizonak eta bere burua gizon edo emakume bezala identifikatzen ez duten 20 pertsonak.</p> <p>Adin-taldearen arabera banaketa honako hau izan da: 543 inkesta 15-19 urteko taldean, 689 inkesta 20-24 urteko adin-taldean eta 815 inkesta 25-29 urteko adin-taldean.</p>
Datuen haztapena	Inkesten banaketa ez da zehazki proportzionala (baina talde bakoitzean behar beste gazte izateko bilatu da), eta gero doitu egin da, datuak haztatuz, gazteen benetako banaketaren arabera (sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera).
Lagin-errorea	\pm % 2,2, lagin osorako, konfiantza maila % 95,5 izanik eta lagina erabat ausazkoa balitz ($p=q=0,5$)
Landa-lanaren data	2024ko urriaren 10tik 23ra bitartean
Ikerketaren diseinua eta datuen analisia	Gazteen Euskal Behatokia
Landa-lanaz arduratu den enpresa	INGARTEK Consulting S.L.


1. GIZARTERAKO NAHI DUTEN ALDAKETA-MAILA

Gazte gehienek uste dute gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela (% 64,5ek)

2024an jasotako datuen arabera, 15-29 urteko Euskadiko hiru gaztetik ia bik (% 64,5ek) uste dute gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela.

% 20,4k uste du aldaketa txikiekin hobetu daitekeela, eta % 12,3k uste du errotik aldatu behar dela. Soilik % 1,6k uste du gure gizartea ondo dagoela dagoen bezala.

2012tik 2024ra gora egin du gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela uste duten gazteen ehunekoak, eta behera, berriz, aldaketa txikiekin hobetu daitekeela uste dutenen ehunekoak, bai eta errotik aldatzea eskatzen dutenen ehunekoak ere.




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan eskatzen dituzte gizarte-erreforma sakonak (% 71,0k eta % 58,5ek, hurrenez hurren).

Adin-talde guztietan, gazte gehienek uste dute egungo gizarteak erreforma sakonak behar dituela. Gazteen adinak gora egin ahala, gizartea errotik aldatu behar dela uste dutenen ehunekoak ere gora egiten du, nahiz eta oraindik ere gutxiengoa diren (% 15,9 dira 25-29 urtekoen artean, eta % 7,4 dira 15-19 urtekoen artean); aitzitik, behera egiten du gizartea dagoen bezala ondo dagoela edo aldaketa txiki batzuekin hobetu daitekeela pentsatzen dutenen proportzioak.

1. GIZARTERAKO NAHI DUTEN ALDAKETA-MAILA

15 eta 29 urte bitarteko gazteek gizarterako eskatzen duten aldaketa-maila, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

Sexua eta adina gurutzatzen baditugu, ikusiko dugu gizonen eta emakumeen adin-talde guztietan gehiengoa direla gizarte-erreforma sakonak eskatzen dituztenak. Nolanahi ere, badira zenbait desberdintasun aipagarriak. 25 eta 29 urte bitarteko emakumeek adierazten dute gehien (% 74,8k) erreforma sakonak egin behar direla, eta ondoren 20 eta 24 urte bitarteko emakumeek (% 72,4k). Aldaketa txikiak eginez gizartea hobetu daitekeela defendatzen dute gehien 15-19 urteko gizonek (% 26,1ek) eta, jarraian, adin-talde bereko emakumeek (% 24,4k). 25 eta 29 urte bitarteko gizonek eskatzen dute gehien gizartea errotik aldatzea (% 18,8k). Eta 15 eta 19 urte bitarteko mutilak dira gehien defendatzen dutenak gizartea dagoen moduan ondo dagoela, nahiz eta iritzi hori dutenen ehunekoa oso txikia izan (% 5,2).

Adin-taldeen araberako aldeak nabarmenagoak dira emakumeen kasuan gizonen kasuan baino. Emakumeen artean, 20 urtetik aurrera, gure gizartea hobetzeko aldaketa txikiak egitea nahikoa dela uste dutenen ehunekoa erdira jaisten da, eta, aitzitik, aldaketa erradikalak beharrezkoak direla uste dutenena bikoiztu egiten da.


1. GIZARTERAKO NAHI DUTEN ALDAKETA-MAILA

Bizi garen gizarteari buruzko honako lau iritzi hauetatik, zeinekin zatoz bat?						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Dagoen moduan ondo dago	2,1	0,3	0,0	5,2	1,5	0,0
Hobetu daiteke aldaketa txikiak eginez	24,4	13,7	12,3	26,1	22,4	23,0
Aldaketa edo erreforma sakonak behar ditu	66,1	72,4	74,8	57,4	60,9	57,3
Zeharo aldatu behar da	5,4	12,3	12,6	9,1	14,6	18,8
Ez du erantzun nahi	2,0	1,2	0,3	2,2	0,7	0,9
Guztira	100	100	100	100	100	100

Politikarekiko interesak ere eragina du gazteek eskatzen duten gizarte-aldaketan. Zenbat eta interes handiagoa izan politikan, gero eta gazte gutxiagok uste dute gizartea aldaketa txikiak eginez hobetu daitekeela.

Gizartea zeharo aldatzea gehiago eskatzen dute politikan interes handia duten gazteek, baina bai eta batere interesatuta ez daudenek ere. Edozelan ere, kolektibo horietan ere txikiak dira aldaketa erradikalak eskatzen dituztenen ehunekoak.

15 eta 29 urte bitarteko gazteek gizarterako eskatzen duten aldaketa-maila, politikarekiko interesaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

2. ALDAKETEK NORANTZ JO BEHAR DUTEN

Hamar gaztetik seik uste dute gizartearen aldaketek eta erreformek ezkererantz jo behar dutela (% 58,8k)

Gizarterako eskatzen diren aldaketa edo erreforma horietan pentsatuta, gazteei planteatu zaie, beren ustez, aldaketa horiek ezkerredera edo eskuinera bideratu beharko liratekeen. Ez dugu aurretik definitu zer den ezkerre eta zer eskuina; inkestatutako pertsonak termino horiei buruz egiten duten interpretazioaren arabera erantzun dute, baina adostasun sozial zabala dago eskuina kontserbadorea eta ezkerre aurrerakoa izatearen inguruan.


Gazteriaren erdiak baino gehixeagok (% 58,8k) uste du aldaketek ezkererantz jo beharko luketela. Aitzitik, % 12,8k uste du aldaketek eskuinerantz jo beharko luketela. Gainerako % 28,4k ez daki edo ez du erantzun nahi.

Bai gizon gazteen artean, bai emakume gazteen artean eta baita aztertutako hiru adin-taldeetan ere, gehienek uste dute aldaketek eta erreformek ezkererantz jo behar dutela, nahiz eta alde batzuk egon taldeen artean.

Gizon gazteen artean, aldaketek eskuinerantz jo beharko luketela uste dutenen ehunekoa emakumeen artean jasotakoa baino handiagoa da (izan ere, bikoitza da): % 16,8 eta % 8,8, hurrenez hurren.

Adinak aurrera egin ahala handitzen da aldaketek ezkererantz jo beharko luketela uste duten gazteen ehunekoa eta jaisten da bere jarrera aditzera ematen ez dutenen ehunekoa.

Gizarte-aldaketak eta -erreformak zer zentzutan bideratu behar diren, gazteen ustez, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

2. ALDAKETEK NORANTZ JO BEHAR DUTEN


Sexua eta adina gurutzatuz gero, ikusiko dugu aldaketek eskuinerantz jo beharko luketela uste duten gizon gazteen ehunekoak antzekoak direla hiru adin-taldeetan eta, kasu guztietan, bere adineko emakumeei dagozkien ehunekoak baino handiagoak.

Emakumeen zein gizonen adinak gora egin ahala handitzen doa aldaketek ezkererantz jo beharko luketela uste duten gazteen ehunekoa eta jaisten da erantzuten ez duten gizon eta emakumeen ehunekoa.

Gizartearen aldaketei edo erreformei dagokienez, eta politikan ohikoak diren "eskuina" eta "ezkerra" terminoak erabiliz, norantz jo beharko lukete aldaketa horiek zure ustez?						
(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Eskuinerantz	10,3	9,8	6,0	16,0	16,9	17,8
Ezkererantz	48,9	66,0	71,9	51,9	52,7	62,1
Ez du erantzun nahi	40,8	24,1	22,1	32,1	30,4	20,1
Guztira	100	100	100	100	100	100

Bestalde, politikan interes handia duten gazteek neurri handiagoan erakusten dute zein den bere lehentasuna, ezkerreara jotzekoa zein eskuinera jotzekoa izan. Politikan batere interesik ez duten gazteek, aldiz, gutxien eman dute bere iritzia (izan ere, gehienek, % 57,5ek ez dute erantzun).

Gizarte-aldaketak eta -erreformak zer zentzutan bideratu behar diren, 15-29 urte bitarteko gazteen ustez, politikarekiko interesaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

2. ALDAKETEK NORANTZ JO BEHAR DUTEN

Zenbat eta gizarte-aldaketa handiagoa eskatu, orduan eta gazte gutxiagok erantzuten dute zein zentzutara jo behar duten aldaketa horiek.

Gizartea errotik aldatu behar dela uste duten gazteen artean, aldaketek eskuinerantz jo behar dutela uste dutenen ehunekoa txikia da, baina batez bestekoa baino handiagoa (% 20,5).

Gizarte-aldaketak eta -erreformak zer zentzutari bideratu behar diren, 15-29 urteko gazteen ustez, gizarterako eskatzen den aldaketa-mailaren arabera* (%)



*Ez dira sartu gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste duten gazteei dagozkien datuak, laginean iritzi horretako gazte gutxi daudelako.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Gazteen % 80 baino gehiago ados daude klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartzearekin, bai eta herritarrek erabaki publikoetan modu eraginkorragoan parte hartzeko mekanismoak ezartzearekin ere

Gazteei gizarte-aldaketa batzuk proposatu zaizkie, bere adostasun-maila adierazteko. Aldaketa horietatik, gazteen artean adostasun handiena eragiten duena (gazteen % 88,0 oso edo nahiko ados dago) klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartzea da.

Adostasunaren araberrako zerrendan (zeinetan oso ados eta nahiko ados dauden gazteak batera kontuan hartu diren), bigarren tokia balizko gizarte-aldaketa hau legoke: herritarrek erabaki publikoetan modu eraginkorragoan parte hartzeko mekanismoak ezartzea (hala nola, erreferendum lotesleak eta abar). Gazteen % 81,5 % ados daude horrekin.

Hirugarren tokian (gazteen % 74,7ren adostasuna jasota), honako proposamen hau legoke: euskararen presentzia eremu guztietan bermatzeko urrats gehiago ematea. Eta antzeko ehunekoa (% 72,6) jaso du beste honek: emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza edo neurri gehiago hartzea.


Gazteen erdiak baino gehiago dira Euskadirentzat autogobernu maila handiagoa lortu beharrarekin ados daudenak (% 66,1); nahiz eta pribilegioak edo bizi-kalitatea galtzea ekarri, aberastasuna hobeto banatu beharrarekin ados daudenak (% 64,0), eredu ekonomikoa desazkunderantz aldatu beharrarekin ados daudenak (% 60,5); eta laguntza sozial gehiago bultzatu beharrarekin ados daudenak, horrek zerga gehiago ordaintzea ekartzen badu ere (% 59,5).

Ia gazteen erdiak ados daude eredu ekonomiko liberalagoa bultzatzearekin, Estatuaren esku-hartze txikiagoko ereduarekin (% 49,6). Eta erdiak baino gutxixeago dira immigrazioari dagokionez, neurri murriztaileagoak hartu beharrarekin ados dauden gazteak (% 45,1).

Azkenik, oso gazte gutxi daude ados erlijioari garrantzi handiagoa ematearekin (% 13,6 baino ez). Izan ere, gazte gehienek esan dute ez daudela batere ados baieztapen horrekin (% 56,6k).

3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Honako aldaketa sozial hauekin 15-29 urteko gazteek azaldu duten adostasun-maila (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Emakume eta gizon gazteen arteko iritzi-alderik handiena emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza gehiago abian jartzeari buruzkoa da

Balitzeko aldaketa edo erreforma horiei dagokienez, emakume eta gizon gazteen arteko aldeei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu emakumeen artean adostasun-maila gizonen artean jasotakoa baino handiagoa dela honako aldaketa hauen kasuan: klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartzea, emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza edo neurri gehiago abian jartzea, gizarte-laguntza gehiago bultzatzea (nahiz eta horrek zerga gehiago ordaintzea ekarri), eta euskararen presentzia eremu guztietan bermatzeko urrats gehiago eman beharra.


Aitzitik, gizon gazteen adostasun-maila emakumeena baino handiagoa da honako aldaketa hauekin: herritarrek erabaki publikoetan modu eraginkorragoan parte hartzeko mekanismoak ezartzea, Euskadirentzat autogobernu-maila handiagoa lortzea eta, immigrazioari dagokionez, neurri murriztaileagoak hartzea.

Edozelan ere, emakumeen eta gizonen arteko alderik handiena emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurriak abian jartzeari dagokio. Kasu horretan, oso ados dauden emakumeen ehunekoak (% 48,0) gizonen artean jasotakoa (% 23,8) bikoizten du.

Adin-taldeen arteko aldeak ez dira azpimagarriak; izan ere, deigarriena erantzun ez duten 15 eta 19 urte bitartekoen ehunekoa da.

3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Honako aldaketa sozial hauekin 15-29 urteko gazteek azaldu duten adostasun-maila, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Politikarekiko interesa eta gizarterako nahi den aldaketa-maila handitu ahala, handitzen da neurri hauekin oso ados daudenen ehunekoak, baina baita batere ados ez daudenenak ere; hau da, gazte inplikatuenean eta aldaketa sakonagoak eskatzen dituztenek jarrera zehatzagoa dute, aldekoa edo kontrakoa.

Aldaketak eta erreformak askotarikoak izan daitezke. Adierazi honako baieztapen bakoitzarekin oso ados, nahiko ados, ez oso ados edo batere ados ez zauden (%)						
PROPOSATUTAKO ALDAKETA	Gizarterako eskatzen duten aldaketa-maila*	Adostasun-maila				
		Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ados ez	Ez du erantzun
Klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartu	Aldaketa txikiak	32,4	53,1	10,0	1,5	3,0
	Erreforma sakonak	48,1	41,5	8,0	1,1	1,3
	Zeharo aldatzea	60,0	26,1	7,8	5,3	0,8
Herritarrek erabaki publikoetan parte hartzeko mekanismoak ezarri	Aldaketa txikiak	31,4	49,1	10,5	1,5	7,4
	Erreforma sakonak	38,3	44,5	8,3	1,0	7,9
	Zeharo aldatzea	55,9	23,9	10,9	3,4	5,9
Urrats gehiago euskararen presentzia eremu guztietan bermatzeko	Aldaketa txikiak	34,9	36,1	15,5	7,2	6,3
	Erreforma sakonak	47,0	29,2	13,3	5,2	5,4
	Zeharo aldatzea	54,8	21,6	12,1	9,6	1,9
Emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza edo neurri gehiago	Aldaketa txikiak	26,6	43,6	18,4	5,7	5,6
	Erreforma sakonak	38,1	36,8	12,9	6,6	5,6
	Zeharo aldatzea	42,0	27,6	14,0	14,2	2,2
Autogobernu-maila handiagoa Euskadirentzat	Aldaketa txikiak	26,3	37,1	17,6	3,9	15,1
	Erreforma sakonak	31,3	36,0	15,4	3,7	13,7
	Zeharo aldatzea	38,8	29,1	10,8	11,0	10,3
Aberastasuna hobeto banatu, nahiz eta bizi-kalitatea galdu	Aldaketa txikiak	21,3	38,0	26,6	6,8	7,3
	Erreforma sakonak	30,8	34,5	20,2	7,4	7,1
	Zeharo aldatzea	48,9	21,1	15,8	12,6	1,6
Eredu ekonomikoa aldatu, desazkunderantz jo	Aldaketa txikiak	15,4	39,3	15,5	6,5	23,3
	Erreforma sakonak	25,1	36,0	12,0	5,8	21,1
	Zeharo aldatzea	47,6	24,3	7,8	7,4	12,9
Gizarte-laguntza gehiago bultzatu, nahiz eta zerga gehiago ordaintzea ekarri	Aldaketa txikiak	18,2	35,9	26,4	12,8	6,8
	Erreforma sakonak	27,1	34,5	23,0	10,8	4,5
	Zeharo aldatzea	41,8	18,8	16,0	20,9	2,5
Eredu ekonomiko liberala bultzatu, estatuaren esku-hartze gutxiago	Aldaketa txikiak	20,2	35,6	21,6	9,1	13,6
	Erreforma sakonak	15,4	32,4	20,9	15,7	15,5
	Zeharo aldatzea	27,0	21,4	12,2	32,4	7,0
Immigrazioari dagokionez, neurri murriztaileagoak ezarri	Aldaketa txikiak	20,0	33,1	26,6	9,4	11,0
	Erreforma sakonak	16,9	25,6	28,1	19,6	9,8
	Zeharo aldatzea	30,6	14,6	16,7	31,4	6,7
Erljioari garrantzi handiagoa eman	Aldaketa txikiak	7,3	14,7	34,9	35,1	8,0
	Erreforma sakonak	3,2	5,9	23,7	63,3	3,8
	Zeharo aldatzea	8,0	7,4	13,5	66,1	5,1

*Ez dira sartu gizarte dagoen moduan ondo dagoela uste duten gazteei dagozkien datuak, laginean iritzi horretako gazte gutxi daudelako.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Iritzi-alderik handienak gizarte-aldaketek ezkererantz edo eskuinerantz jo behar dutela uste duten gazteen artekoak dira

Aldaketek ezkererantz jo behar dutela uste duten gazteek adostasun handiagoa dute proposatutako aldaketa edo erreforma sozial mota hauekin: klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartzea; euskararen presentzia esparru guztietan bermatzeko urrats gehiago emateko beharra; emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza gehiago abian jartzeko beharra; aberastasuna pertsona guztien artean hobeto banatzeko proposamena, nahiz eta horrek pribilegioak eta bizi-kalitatea galtzea ekarri; gizarte-laguntza gehiago bultzatzea, nahiz eta haiek zerga gehiago ordaintzea ekarri; Euskadirentzat autogobernu maila handiagoa lortzea; herritarrek erabaki publikoetan parte-hartze eraginkorragoa izateko mekanismoak ezartzea; eta eredu ekonomikoa desazkunderantz aldatzea.

Aitzitik, gizarte-aldaketek eta -erreformek eskuinerantz jo behar dutela uste duten gazteek ezkererantz jo beharko luketela uste dutenek baino adostasun handiagoa dute honako neurri hipotetiko hauekin: immigrazioari dagokionez neurri murriztaileagoak hartzea; eredu ekonomiko liberalagoa bultzatzea, Estatuaren esku-hartze txikiagoarekin; eta erlijioari garrantzi handiagoa ematea.



3. ALDAKETA MOTA BATZUEKIN GAZTEEK DUTEN ADOSTASUN-MAILA

Honako aldaketa sozial hauekin 15-29 urteko gazteek azaldu duten adostasun-maila, nahi duten gizarte-aldaketen zentzuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)


4. GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO GOGOA

Gai publikoetan parte hartzen duten edo modu aktiboagoan parte hartzea nahiko luketen gazteen ehunekoa handitu da 2000tik 2024ra

Gazteen erdiak baino gehixeagok (% 53,9) adierazi du gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izatea gustatuko litzaiokeela. Gazteen % 18,1ek uste du nahikoa parte hartzen duela, eta orain arte erregistratutako ehunekorik handiena da hori. Aitzitik, gazteen % 18,5ek aitortu du ez litzaiokeela gustatuko gai publikoetan parte hartzea.

Aztertutako 24 urteetan, nabarmen murriztu da gai publikoetan aktiboki parte hartzea gustatuko ez litzaikeela adierazi dutenen ehunekoa: 2000. urtean, 15-29 urteko gazteen % 52,3 ziren, eta 2024an, berriz, % 18,5.

Aitzitik, gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izan nahi duten gazteen ehunekoak gora egin zuen 2020an aurreko urteekin alderatuta, eta ordutik % 50etik gora dago.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

4. GAI PUBLIKOETAN MODU AKTIBOAGOAN PARTE HARTZEKO GOGOA

Gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko nahia adierazten duten emakume eta gizon gazteen ehunekoa antzekoa da (% 53,3 eta % 54,4, hurrenez hurren), baina modu aktiboagoan parte hartzea gustatuko ez litzaiekeela aitortzen dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean (% 21,1) emakumeen artean baino (% 15,6).

Gizartearentzat eskatzen den aldaketa-mailak gora egin ahala, gai publikoetan aktiboki parte hartzeko nahiak ere gora egiten du. Gizarteak erreforma sakonak behar dituela uste dutenen artean eta gizartea zeharo aldatu behar dela uste dutenen artean, ehunekoak % 56,3ra eta % 56,4ra iristen dira, hurrenez hurren. Aitzitik, gizarteak aldaketa txikiak eginez hobera egin dezakeela uste dutenen artean, erdiak baino gutxiago dira (% 48,7) gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutenak.

Gustatuko litzaizuke gai publikoetan gehiago edo modu aktiboagoan parte hartzea?						
(%)	Guztira	Sexua		Gizarterako eskatzen duten aldaketa*		
		Emakumeak	Gizonak	Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Zeharo aldatu
Bai, nahiko zenuke	53,9	53,3	54,4	48,7	56,3	56,4
Uste duzu nahikoa parte hatzen duzula	18,1	19,4	16,8	24,5	16,3	17,2
Ez litzaizuke gustatuko	18,5	15,6	21,1	15,8	18,7	19,5
Ez duzu erantzun nahi	9,6	11,7	7,7	11,0	8,7	6,9
Total	100	100	100	100	100	100

*Ez dira sartu gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste duten gazteei dagozkien datuak, laginean iritzi horretako gazte gutxi daudelako.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

5. MODU EZBERDINETAN PARTE HARTZEKO PRESTASUNA

Parte-hartze modu bakoitzak eskatzen duen inplikazio-mailak gora egin ahala, hori egiteko prest dauden gazteen ehunekoak behera egiten du

Gai publikoetan hainbat modutan parte hartzeko prest dauden galdetu zaie 15 eta 29 urte bitarteko gazteei. Parte hartzeko aukera horiek inplikazio-maila desberdinak eskatzen dituzte. Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, inplikazio-maila txikiagoa eskatzen duten parte hartzeko moduak dira onartuenak; aitzitik, inplikazio-maila handiena eskatzen dutenak dira gazteek gutxien egingo litzuketenak.

Gazteen % 72,8 prest egongo litzateke iritzi-inkestak maiz osatzeko, eta % 61,5 udal-ekimenetan bozkatzeko, hala nola aurrekontu parte-hartzaileetan, adibidez. Gazteen erdiak baino gutxiago daude prest elkarteetan aktiboki parte hartzeko (% 37,6), eztabaida-fofoetan eta bileretan parte hartzeko (% 26,2) edo alderdi politiko batean afiliatzeko (% 12,0 baino ez).

Emakume gazteak gizon gazteak baino zertxobait prestago agertzen dira inkestak erantzuteko, baina prestasun txikiagoa adierazi dute udal-ekimenetan botoa emateko, eztabaida-fofoetan eta bileretan parte hartzeko edo alderdi politikoetan afiliatzeko.

Prest egongo zinateke honako modu hauetako bakoitzean parte hartzeko? (%)							
PARTE HARTZEKO MODUAK	Prestasuna	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
			Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Honelako inkestak maizago betetzen	Bai	72,8	78,2	67,8	66,4	74,0	78,6
	Ez	2,8	0,9	4,7	3,6	2,7	2,3
	Egoeraren arabera	23,0	19,6	26,2	28,2	22,0	18,5
	Ez du erantzun nahi	1,3	1,3	1,3	1,9	1,4	0,6
Udal-ekimenetan bozkatuz, hala nola, aurrekontu parte-hartzaileetan...	Bai	61,5	56,6	65,8	52,9	61,9	70,4
	Ez	12,5	12,8	12,3	16,1	11,2	9,9
	Egoeraren arabera	22,9	26,9	19,4	27,2	22,8	18,4
	Ez du erantzun nahi	3,1	3,7	2,5	3,8	4,1	1,2
Elkarteetan aktiboki parte hartuz	Bai	37,6	37,2	37,6	37,0	37,5	38,4
	Ez	23,7	23,0	24,7	25,7	23,1	22,2
	Egoeraren arabera	35,7	37,0	34,6	33,6	35,3	38,5
	Ez du erantzun nahi	2,9	2,8	3,1	3,7	4,1	0,8
Eztabaida-fofoetan eta bileretan parte hartuz	Bai	26,2	23,4	28,9	25,9	26,0	26,9
	Ez	32,6	32,6	32,8	31,7	35,2	30,9
	Egoeraren arabera	38,5	40,8	36,2	38,6	36,3	40,8
	Ez du erantzun nahi	2,6	3,2	2,1	3,9	2,5	1,4
Alderdi politiko batean afiliatuta	Bai	12,0	9,0	14,7	12,7	12,3	11,1
	Ez	65,1	67,5	63,0	64,2	65,8	65,3
	Egoeraren arabera	18,6	18,4	18,7	18,0	17,6	20,2
	Ez du erantzun nahi	4,3	5,1	3,7	5,1	4,3	3,4
	Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

5. MODU EZBERDINETAN PARTE HARTZEKO PRESTASUNA

Adinean aurrera egin ahala, inkestak erantzuteko eta udal-ekimenetan botoa emateko prestasuna ere handitu egiten da. Adinaren arabera, ez da alde nabarmenik ikusten proposatutako gainerako parte-hartze moduetan.

Politikarekiko interes-mailak gora egin ahala, proposatutako modu guztietan parte hartzeko prest dauden gazteen ehunekoek ere gora egiten dute. Izan ere, politikan interes handia duten gazteen artean, gehienak prest daude inkestak maiz egiteko, udal-ekimenetan botoa emateko, elkarteetan aktiboki parte hartzeko eta eztabaida-foroetan eta bileretan parte hartzeko. Alderdi politikoetan afiliatzea da politikan interes handia duten gazteen artean gehiengoa izatera iristen ez den partaidetza-modu bakarra.

Gizartearentzat nahi den aldaketa-mailak ez du hainbeste desberdintasun adierazten. Nabarmenena da gizartea errotik aldatu behar dela uste dutenek elkarteetan aktiboki parte hartzeko duten prestasun handiagoa (% 48,0 haien artean, eta gazte guztien batezbestekoa % 36,7 da). Nolanahi ere, talde horretan ere ez dira gehienak elkarteetan parte hartzeko prest dauden gazteak.

Gizarte-aldaketek izan beharko luketen zentzuari buruzko iritziak badu alderik erakusten parte hartzeko moduetan. Politikan ohikoak diren "eskuin" eta "ezker" terminoen arabera, aldaketek eskuinerantz jo beharko luketela uste duten gazteek alderdi politikoetan afiliatzeko prestasun handiagoa dute. Aldaketak ezkererantz bideratu beharko lirakeela uste duten gazteek prestasun handiagoa dute udal-ekimenetan bozkatzeko eta elkarteetan aktiboki parte hartzeko.

5. MODU EZBERDINETAN PARTE HARTZEKO PRESTASUNA

Prest egongo zinateke honako modu hauetako bakoitzean parte hartzeko? (%)								
PARTE HARTZEKO MODUAK	Prestasuna	Guztira	Politikarekiko interes-maila				Nahi duten gizarte-aldaketen zentzua	
			Interes handia	Nahikoa interes	Interes gutxi	Batere ez	Eskuine-rantz	Ezkerre-rantz
Honelako inkestak maizago betetzen	Bai	72,8	82,4	81,5	67,1	48,7	72,5	78,4
	Ez	2,8	2,4	2,0	2,0	9,9	5,8	1,5
	Egoeraren arabera	23,0	14,8	16,0	30,2	40,6	19,4	19,9
	Ez du erantzun nahi	1,3	0,5	0,5	0,8	0,8	2,3	0,2
Udal-ekimenean bozkatzuz, hala nola, aurrekontu parte-hartzaileetan...	Bai	61,5	80,6	71,8	50,1	33,8	60,5	68,3
	Ez	12,5	6,1	7,9	15,2	35,4	15,7	9,2
	Egoeraren arabera	22,9	12,7	19,1	31,1	25,5	22,4	21,0
	Ez du erantzun nahi	3,1	0,6	1,2	3,6	5,3	1,4	1,4
Elkarteetan aktiboki parte hartuz	Bai	37,6	65,5	42,7	25,0	15,4	34,7	42,6
	Ez	23,7	9,9	18,4	31,1	48,5	31,3	20,2
	Egoeraren arabera	35,7	24,4	36,9	40,6	32,7	32,0	35,8
	Ez du erantzun nahi	2,9	0,2	1,9	3,2	3,4	2,0	1,4
Eztabaida-foroetan eta bileretan parte hartuz	Bai	26,2	50,8	28,2	17,1	9,8	29,3	28,1
	Ez	32,6	16,7	25,0	43,3	58,0	35,8	30,3
	Egoeraren arabera	38,5	31,6	45,3	37,1	31,0	32,3	40,5
	Ez du erantzun nahi	2,6	0,9	1,4	2,6	1,2	2,6	1,1
Alderdi politiko batean afiliatuta	Bai	12,0	41,8	11,0	1,8	0,6	23,0	11,9
	Ez	65,1	35,4	60,7	80,9	87,9	53,1	65,7
	Egoeraren arabera	18,6	21,4	25,3	13,3	6,4	22,0	20,4
	Ez du erantzun nahi	4,3	1,4	3,0	4,0	5,1	1,9	2,0
	Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

6. AZKEN URTEAN MOBILIZAZIO MOTA EZBERDINETAN PARTE HARTZEA

Azken urtean gazte gehienek parte hartu dute mobilizazioen batean, edozein motatakoa izanik (% 63,4k)

Kontuan hartzen badugu, ez etorkizunean parte hartzeko prestasuna, baizik eta gazteek azken urtean hainbat mobilizazio motatan izan duten benetako parte-hartzea, ikusten dugu Emakumeen Eguna dela-eta edo genero-indarkeriaren aurka egindako greba, manifestazio edo mobilizazio feministek izan dutela jarraipen handiena gazteen artean (gazteen % 49,1ek parte hartu du horrelakoren batean). Emakume gazte gehienek parte hartu dute horrelako mobilizazio batean (% 65,9k), baita gizon gazteen heren batek ere (% 32,9k).

Proposatutako gainerako gizarte-arazoez ez dute lortu gazte gehienak mobilizatzea, ez gizonak, ez emakumeak. Gazteen % 28,6k parte hartu du arrazakeriaren aurkako edo pertsona migratuen edo errefuxiatuen aldeko greba, manifestazio edo mobilizazioen batean; % 25,6k parte hartu du enpleguaren aldeko edo lan-prekarietatearen aurkako mobilizazioen batean; % 20,3k parte hartu du mobilizazio ekologistaren batean, klimaren alde edo klima-aldaketaren aurkako borrokaaren alde; eta % 42,1ek greba, manifestazio edo mobilizazio politikoren batean, ikasle-mobilizazioen batean edo aurrez proposatutakoez bestelako mobilizazioen batean.


Guztira, gazteen % 63,4k adierazi du azken urtean greba, manifestazio edo mobilizazioen batean parte hartu duela, arrazoia edozein dela ere.

Azken urtean mobilizazioen batean parte hartu duten gazteen ehuneko zertxobait jaitsi da 2020an erregistratutakoaren aldean (% 68,1etik % 63,4ra). Parte-hartzearen jaitsiera nabarmenenak mobilizazio feministetan eta ekologistetan erregistratutakoak dira. Aitzitik, mobilizazio politikoetan, ikasle-mobilizazioetan edo beste mota bateko mobilizazioetan parte-hartze handiagoa izan da.

Nolanahi ere, gogoratu behar da 2019an (hau da, 2020ko inkestaren aurreko urtean, eta, beraz, 2020ko datuen erreferentzia-urtean) klima-aldaketaren aurkako munduko lehen greba orokorra egin zela. Greba hori gazteek lideratu zuten, eta ikasleen artean jarraipen handia izan zuen. Era berean, 2018ko eta 2019ko martxoaren 8an izandako Emakumearen Eguneko ospakizunak bereziki jendetsuak izan ziren. Gertaera horiek azaltzen dute, nolabait, 2020an mobilizazio-mota horietan izandako parte-hartze handiagoa.

6. AZKEN URTEAN MOBILIZAZIO MOTA EZBERDINETAN PARTE HARTZEA

Mobilizazio mota ezberdinetan parte hartu duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan parte hartu dute, eta zenbat eta interes handiagoa izan politikan, orduan eta gehiago parte hartzen da mobilizazioetan

Azken urtean (hau da, 2023ko urritik 2024ko urrira) parte hartu dutenen berri ematen duten 2024ko urriko datuen arabera, emakumeek gizonek baino gehiago parte hartu dute mobilizazioetan (aldea ehuneko 20 puntukoa da). Are gehiago, emakumeek gizonek baino gehiago parte hartu dute proposatutako mobilizazio mota guztietan, baina alderik nabarmenena mobilizazio feministei edo genero-indarkeriaren aurkako mobilizazioei dagokiena da.

6. AZKEN URTEAN MOBILIZAZIO MOTA EZBERDINETAN PARTE HARTZEA

Adinak gora egin ahala, enpleguaren aldeko grebetan, manifestazioetan edo bestelako mobilizazioetan parte hartzeak ere gora egiten du, baina behera egiten du mobilizazio ekologistetan, arrazismo edo xenofobiaren kontrakoetan, ikasleenetan edo bestelakoetan parte hartzeak. Mobilizazioaren batean parte hartu dutela diotenei erreparatuta, ikusten dugu ehunekorik handiena 15-19 urtekoen artean erregistratutakoa dela (% 71,2).

Politikarekiko interesa handitu ahala, proposatutako mobilizazio mota guztietan parte hartu dutenen ehunekoak ere gora egiten du. Politikan interes handia dutela dioten gazteen % 73,6k mobilizazioaren batean parte hartu du azken urtean; politikan batere interesik ez dutenen artean, berriz, ehunekoak 25 puntu txikiagoa da (% 48,1).

Azken urtean egin duzu grebarik edo parte hartu duzu honako aldarrikapen hauek zituzten manifestazioetan edo mobilizazioetan? (%)										
(mobilizazio mota bakoitzean parte hartu dutenen %)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Politikarekiko interes-maila			
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Interes handia	Nahikoa interes	Interes gutxi	Batere ez
EDOZEIN MOBILIZAZIO MOTA	63,4	73,8	53,4	71,2	59,4	59,2	73,6	67,5	57,5	48,1
Feminista, emakumeen eguna dela eta, emakumeen kontrako biolentziaren aurka	49,1	65,9	32,9	49,9	49,4	47,9	58,3	54,4	43,8	29,6
Arrazismoaren aurka edo etorkin edo errefuxiatuen alde	28,6	34,4	22,8	31,4	28,5	25,7	39,9	32,9	21,8	13,2
Lanaren alde, lan-prekarietatearen kontra	25,6	29,0	21,8	17,8	27,3	32,1	40,3	28,0	19,3	11,9
Ekologiaren alde, klima-aldaketaren kontrako neurriak hartzearen alde	20,3	22,8	17,9	25,0	22,0	13,4	30,5	20,7	15,6	10,6
Beste motatakoa, hala nola, politikoa, ikasleena eta abar	42,1	45,3	38,7	56,8	38,3	30,0	60,0	45,2	33,1	29,9
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)										

6. AZKEN URTEAN MOBILIZAZIO MOTA EZBERDINETAN PARTE HARTZEA

Gizarteak erreforma sakonak edo aldaketa erradikalak behar dituela uste duten gazteek gehiago parte hartu dute proposatutako mobilizazio mota guztietan, gizartea aldaketa txikiekin hobetu daitekeela uste dutenek baino.

Aldaketa sozialak ezkererantz bideratu behar direla uste duten gazteek gehiago parte hartu dute mobilizazio guztietan, aldaketa sozialak eskuinerantz bideratu behar direla uste dutenek baino.

Azkenik, behar beste parte hartzen dutela uste duten gazteek diote gehien parte hartu dutela mobilizazio mota guztietan, eta ondoren, modu aktiboagoan parte hartu nahiko luketenen. Gai publikoetan gehiago parte hartzea gustatuko ez litzaiekeela dioten gazteak dira, izan ere, azken urtean gutxien parte hartu dutenak.

Azken urtean egin duzu grebarik edo parte hartu duzu honako aldarrikapen hauek zituzten manifestazioetan edo mobilizazioetan? (%)									
(mobilizazio mota bakoitzean parte hartu dutenen %)	Guztira	Gizarterako eskatzen duten aldaketa*			Aldaketek izan behar duten zentzua		Gai publikoetan parte hartzeko gogoia		
		Aldaketa txikiak	Erreforma sakonak	Zeharo aldatu	Eskuinerantz	Ezkererantz	Gustatuko litzaieke	Nahikoa parte hartzen dute	Ez litzaieke gustatuko
EDOZEIN MOBILIZAZIO MOTA	63,4	52,6	65,8	67,7	41,5	73,1	68,8	71,4	43,3
Feminista, emakumeen eguna dela eta, emakumeen kontrako biolentziaren aurka	49,1	35,5	53,8	50,9	21,3	61,8	53,7	56,0	31,3
Arrazismoaren aurka edo etorkin edo errefuxiatuen alde	28,6	20,9	29,6	35,5	14,1	34,4	32,3	34,8	16,9
Lanaren alde, lanprekarietarearen kontra	25,6	16,9	26,2	37,0	13,6	32,0	29,6	30,2	13,0
Ekologiaren alde, klima-aldaketaren kontrako neurriak hartzearen alde	20,3	16,5	20,1	25,2	15,1	23,2	21,8	28,2	10,3
Beste motatakoa, hala nola, politikoa, ikasleena eta abar	42,1	35,5	41,6	51,6	30,3	48,3	47,6	49,1	22,8

*Ez dira sartu gizartea dagoen moduan ondo dagoela uste duten gazteei dagozkien datuak, laginean iritzi horretako gazte gutxi daudelako.


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

7. AZKEN HIRU URTEETAN IZANDAKO HAUTESKUNDEREN BATEAN BOZKATZEA

18 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zortzik bozkatu dute azken hiru urteetan izandako hauteskunderen batean

Parte hartzeko beste modu bat bozkatzea da. 18 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zortzik (% 80,7) adierazi dute azken hiru urteetan egindako hauteskunderen batean bozkatu dutela.

Azken hiru urteetan izandako hauteskunderen batean bozkatu duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, hainbat aldagai soziodemografikoen edo iritzien arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2024ko urria)

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago bozkutzen dute (% 83,8k eta % 77,6k, hurrenez hurren). Adinak gora egin ahala, azken hiru urteetan noizbait botoa eman dutela dioten gazteen ehunekoak ere gora egiten du. Politikan interesa duten gazteek gai politikoetan batere interesik ez dutenek

7. AZKEN HIRU URTEETAN IZANDAKO HAUTESKUNDEREN BATEAN BOZKATZEA

baino gehiago bozkutzen dute. Gizarteak erreforma sakonak behar dituela uste dutenek gainerako gazteek baino gehiago bozkutzen dute. Eta aldaketa eta erreforma sozialak ezkererantz bideratu behar direla uste dutenek gehiago bozkutzen dute aldaketa horiek eskuinerantz joan behar dutela uste dutenek baino. Azken urtean mobilizazioen batean parte hartu duten pertsonen parte hartu ez dutenek baino neurri handiagoan esan dute bozkatu dutela. Eta gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzea gustatuko litzaiekeela dioten gazteek ere aktiboki parte hartzeko gogorik ez dutenek baino gehiago bozkatu dute.



Gazte gehienek uste dute gure gizarteak erreforma sakonak behar dituela eta erreforma edo aldaketa horiek ezkererantz bideratu behar direla.

Balitzo gizarte-aldaketa batzuen artean, honako hauek dira gazteek gehien eskatzen dituztenak (gazteen % 70 baino gehiago oso ados edo nahiko ados daude aldaketa horiekin): klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartzea, herritarren parte-hartze eraginkorragoa lortzeko mekanismoak ezartzea, eremu guztietan euskararen presentzia bermatzeko urrats gehiago ematea eta emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurri gehiago hartzea (azken alderdi horrek sortzen ditu iritzi-desberdintasun handienak emakume eta gizon gazteen artean).

Gazteen erdiak baino gehiagok adierazi du gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izatea gustatuko litzaiokeela, baina proposatutako partaidetza-moduetatik bik bakarrik lortzen dute gehiengoaren atxikimendua: iritzi-inkestetan parte hartzea eta udal-ekimenetan bozkatzea, adibidez, aurrekontu parte-hartzailetan.

Hiru gaztetik ia bik mobilizazioaren batean parte hartu dute azken urtean. Arrakastatsuenak mobilizazio feministak izan dira, baina soilik emakumeen artean lortu dute gehienek parte hartzea.

Eta 18 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zortzik adierazi dute azken hiru urteetan egindako hauteskunderen batean bozkatu dutela.

